

Ipuin irakurketak eta idazmen lehiaketak Markina-Xemeingo kultur egitaraua zabalduko dute

Liburuaren Egunaren inguruan antolatzen den ' Berba Idatziak 2006 ' izeneko ekintza sorta hilabete osoan zehar luzatuko da Iñigo Alberdi Markina-Xemein Beste urte batzuetan bezala, apirilaren 23a liburuaren eguna dela aprobetxatuz, literatura, irakurketa eta liburuekin lotutako ekintzak antolatu dira Markina-Xemeinen. Aurten ez da Liburu Azokarik izango eta, horregatik, ekitaldi guzti hauei ' Berba Idatziak 2006 ' izenarekin deitzea erabaki dute. Ekimenaren lehenengo zatia bihar hasiko da eta nazioarteko haur liburuaren eguna izanik, eguneko ekitaldiak haurrei zuzenduta egongo dira. Apirilaren 2an Hans Christian Andersen jaio zela eta data hau mundu guztian liburuaren eguna ospatzeko hautatu zen. Markina-Xemeingo liburutegian idazle danimarkarrari zorionak abestuko zaizkio goizeko 11.30ean eta ostean bere ipuin bat irakurriko da. Ekintza hau mundu guztian egingo da ordu berean. Urtero ipuin desberdina hautatzen da eta aurten ' Printzesa eta ilarra ' irakurriko da. Horrekin batera nazioarte mailan zabaltzen den haur liburuaren aldeko mezu berdinekin ere zabalduko da. Ipuin lehiaketa Apirilaren 3tik 8ra bitartean ' Ezkontza eta gero zer? ' izeneko lehiaketan parte hartu nahi dutenek izango dute euren lanak aurkezteko epea. Lehiaketaren helburua da aurtengo ipuinari, ' Printzesa eta ilarra ', beste amaiera bat ematea. Lanak euskara batuan aurkeztu beharko dira eta, prosaz zein bertsoz idatziak izan daitezke. Estatu mailako lehiaketa honetan Lehen hezkuntzako haurrek hartu ahal dute parte. Markinan bost irabazle aukeratuko dira eta euren lanak Galitzagorri Elkartera bidaliko dira, beste herri guztien artean euskarazko lanik onena hautatzeko. Gauza bera egingo da beste hizkuntzekin eta horrela, Consejo General del Libro Elkarrekin gaztelaniazkoak hautatuko ditu, Galix Elkartean galegoz idatzitakoak eta katalanez idatzitako irabazleak Consell Català del Libre per a Infants i Joves-ek. Ibilbide luze hau dela eta irabazleen izenak ekainera arte ez dira jakintera emango. Irabazleentzako saria liburu sorta bat izango da baina, horrez gain, irabazleen artean markinarrik balego DVD irakurle bat ere emango liokete bertoko antolatzaileek.